



LEIHOTIK

N° 8

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAREN BERRIPAPERA
BULLETIN D'INFORMATION DE L'INSTITUT CULTUREL BASQUE
1999ko APIRILA-MAIATZA / AVRIL-MAI 1999

AITZINSOLASA

Hiru xede gogoan...

Aurten zen Administrazio kontseiluaren berritzea. Hauteskundeon ondotik multzo berdintsua bildu gara. J.M. Larrasquet-en orde Ph. Goyetche jin zaigu Euskal Konfederazioaren ordezkari. Galdegin didate erakunde buru jarrai dezadan oraino hiru urtez. Ene gogoan azkenak dira kargu horretan, eta hiru xederekin iraganen ditut.

1. Euskal kultur erakundearen batasuna : 10 urtez bilgune ederra antolatu dugu euskaltasunaren inguruan, 145 herri, 80 bat elkarte eta botere publikoaren 4 mailak. Batasunaren zimendua da talde profesionalaren kartsutasuna, urtero ehun bat ekintza eramaiteko, elkarrean lankidetzarekin.

2. Euskaltasuna sarraraz XXI. mendean, Pantxoa Etchegoin zuzendariak prestatu digun egitarauaren bidetik. Urte osoan eta bereziki urrian denek gogoetak eginen ditugu : "Zer kultura datorren menderako ?". Eta "Kantuketan" eginkizunarekin berehala iraganen gara asmotik praktikara. Administralarien lana da garapenaren ahalbideak ardiestea.

3. Hizkuntz Kontseiluaren eraikitzea da beste erronka nagusia. Eztatida sakon baten ondotik, Biltzar nagusiko partaideen gehiengo handi batek printzipioz onartu du Euskal kultur erakunde izan dadin aterpe juridiko baliosa euskara zainduko duen egitura ofizialarentzat. Halere 9 ordezkari beren mesfidantza adierazi dute. Hiru hilabete baditugu erakunde publikoan eleak borondate politiko bilakarazteko. Eta elkarrean akordio zabala biltzeko, elgarrekin moldatuko dugun hizkuntz antolaketa egitura eraginkor batean. Eta gerokoak gero.

ÉDITO

Avec trois intentions...

1999 : année du renouvellement du Conseil d'administration. Un seul changement : regret de voir partir J.-M. Larrasquet et joie d'accueillir Ph. Goyetche, nouveau délégué d'Euskal Konfederazioa. J'ai accepté un nouveau (et dernier) mandat de présidence avec trois intentions.

1. Maintenir l'unité de l'Institut culturel basque. En 10 ans nous avons créé un excellent point de rencontres autour de 145 communes, 80 associations et les 4 niveaux de pouvoir public.

Le ciment de cette unité, c'est la ferveur de l'équipe professionnelle qui chaque année réalise une centaine de projets, en coopération avec les associations.

2. Introduire la culture basque au 21^{ème} siècle en accompagnant le programme élaboré par notre Directeur. Ce sera l'occasion de réfléchir ensemble sur le thème "Quelle culture basque pour le prochain siècle ?".

Le projet pluriannuel "Kantuketan" nous fera passer immédiatement des idées aux travaux pratiques. La mission des administrateurs sera de trouver les ressources nécessaires au développement culturel.

3. Le Conseil de la Langue est un autre enjeu important. A la suite d'un débat animé, la grande majorité des participants de l'A.G ont accepté le principe que l'Institut culturel basque est un cadre juridique valable pour abriter l'organisme officiel de promotion de l'euskara. Cependant 9 délégués ont exprimé leur scepticisme. Le Conseil d'administration se donne 3 mois pour que les intentions des élus se transforment en volonté politique concrète. Et pour obtenir la concertation des associations dans une structure que nous bâtissons ensemble afin d'oeuvrer dès maintenant à l'aménagement linguistique.

Erramun Bachoc
Lehendakaria/Président

Euskal kantua : oroitmenetik sorkuntzara

Euskal kultur erakundearen lehen eginbeharra elkarrean sustengatzea da, haien eta erakunde desberdinen artean zubiak eraikiz. Bizkitartean, noiz-behinka bultzatu behar ditu ere berak ekoiztuko dituen ekintzak elkarrekin partaidetzan. Horrela sortu da "KANTUKETAN".

Zergatik euskal kantuari buruzko egitasmo bat ?

Euskal Herriko gizartearen bizian, kantuaren eta musikaren garrantzia aspaldidanik ezagutua da, kantuak daukan aspektu sozial hori egunero frogatzen baita. Bestalde, ez ote du kantuak karreazten euskararen aberastasuna ? Ber-denboran, nola geografiaren hala hizkuntzaren mugak erreki gainditzen ditu. Bizkitartean, alor haundiak badira lantzeko : euskal kantuaren historiari buruzko ikerketak, formakuntza, gaurko sorkuntza, etabar.

Egitasmoa

Lehen-lehenik, derragun epe luzerako egitasmoa dela, funtsezko lan luze baten abiapundua. Lau ataletan banatua da :
- 2000 edo 2001garren urte

hastapenean, erakusketa moderno eta ibilkari bat apailatua izanen da ;
- Aspektu pedagogikoa konduan hartuz, formakuntza ekimenak alhan ezarriak izanen dira, Hezkuntza Nazionalaren partaidetzarekin ;
- Ekitaldi bereziak antolatuko ditugu, eta beste erresumetako kantariekin harremanetan sartuko gara, gure kantuaren berezitasuna haienekilan parezkatzeko ;
- Gure oroitmen kolektiboari dagozkion dokumentuen bilketa bat hasiko dugu, eta kantuaren aldeko lanabes edo tresna beharrezkoenen sortzeko gogoetak ere (adibidez musika artxibategi bat).

Lau ezaugarri

Kantuketan proiektuak gutienez lau ezaugarri ditu :

Goiti-nahia bilatua da : helburutzat hartuz euskal kantuaren garatzea, erakusketa egiteaz gain, beste ainitz ekintza antolatuak izanen dira, Euskal Herrian eta kanpoan (formazio, animazio, ikusgarri, ikerketa lan, gogoeta, ..) Halaber, kantuaren historiaren osatzeko lana abian jarria izanen da.

Bateratzailea da : Euskal Herriko eta kanpoko elkarte eta erakunde ainitzek molde desberdinez parte hartuko dute egitasmo honetan, kultur erakunde partaide izan ala ez.

Kulturen arteko zubia egiten du : gure kantuaren oihartzuna hedatuz, beste munduko adierazpen artistikoekin kurutzatuko da.

Azkenik, **eragilea da**, sorkuntza eta erakuskuntza artistikoaren aldeko ekimen berrien abiapundua.

Oro har, proiektu honekin, Euskal kultur erakundeak bere "harria" ezarri nahi du, gure biziaren historia hain ongi aldarrikatzen duen kantuaren edifizio ederrean.

Un projet fédérateur autour du chant basque

Le 8 mars dernier, Pantxoa Etchegoin, directeur de l'Institut culturel basque, assisté de Jacques Larre, chargé de mission, faisait connaître à la presse les grandes lignes du projet "Kantuketan". Etaient également présents à cette rencontre, des chanteurs, musiciens, ethnomusicologues qui participent déjà aux travaux des différentes commissions.

Pourquoi un projet sur le chant basque ?

L'importance du chant et de la musique dans la vie du peuple basque n'est plus à démontrer. Plus qu'une autre discipline artistique, le chant véhicule les riches sonorités de la langue basque tout en franchissant aisément les frontières tant géographiques que linguistiques.

Et pourtant, un vaste travail est à réaliser en Pays Basque dans de nombreux pans tels que le travail de recherche sur l'histoire du chant basque, sa transmission aux enfants, la création contemporaine et la création d'outils indispensables à son développement.

Nature du projet

L'Institut culturel basque mettra en place diverses actions qui peuvent se répartir en quatre volets :

1) une exposition

moderne, interactive, itinérante et modulable, pour tout public, prévue fin 2000 début 2001. A cet effet, des travaux de recherche seront réalisés (le chant polyphonique, le chant et la danse, l'aspect historique, une étude sociologique et musicologique sur les chorales, les groupes de rock, etc.).

2) des ateliers de formation

* pour les enfants, en collaboration avec l'Education Nationale, en leur proposant un travail vivant et éducatif autour du chant ;
* pour les chanteurs amateurs du Pays Basque, sous forme de stages spécifiques liés à la voix ou avec des résidences d'artistes.

3) de nombreux événements qui comprendront :

Un spectacle-panorama du chant basque ; des concerts, des soirées thématiques, des rencontres par zones géographiques, ainsi que des cycles de conférence. Tout ceci en collaboration avec nos associations partenaires.

Enfin, pour que ce projet ait un retentissement international, des lieux de diffusion seront recherchés, via des échanges culturels avec d'autres pays du monde (Québec, Mexique, Equateur, Argentine, diaspora d'Amérique, etc.).

4) Un travail de recherche sur la récupération de la mémoire du chant basque sera réalisé tout en menant une réflexion sur les outils futurs nécessaires à la pérennisation du chant (sonothèque, création d'une section d'ethnomusicologie par exemple).


Le projet se veut ambitieux, car au-delà de réaliser une exposition, il engendrera à l'échelle du Pays Basque de nombreuses actions d'animation et de formation susceptibles de drainer un large public. Il est fédérateur et en même temps ouvert vers l'extérieur. Enfin, il veut être la locomotive pour de nouvelles initiatives en faveur de la création et de la transmission du chant basque.

C'est un pari majeur pour l'Institut culturel basque qui veut ainsi mettre "sa pierre" pour consolider et embellir notre riche édifice du chant basque.

REGARD

L'ÉCRIT.

UN MONDE A CONQUÉRIR





Près de 7000 ouvrages en langue basque paraîtront bientôt dans les bibliothèques, les médiathèques, les écoles et autres centres de documentation du Pays Basque nord. A l'initiative du Gouvernement de la Communauté Autonome Basque, cette opération va permettre, pour la troisième fois consécutive, une présence plus importante du livre en euskara dans les lieux ayant pour vocation de favoriser la lecture. Initiative non seulement bienvenue mais indispensable, dans une société façonnée par l'oralité et dont la langue doit encore se battre pour exister. (*)

Pourtant issue d'une culture sans âge, l'histoire de la littérature basque est une histoire récente. La plupart des livres publiés en langue basque l'ont été durant ces vingt dernières années. Après la mort de Franco, les plumes se libèrent enfin, et la quantité d'ouvrages édités est multipliée par trois en quelques années. La reconquête de la liberté d'écriture s'accompagne d'un certain nombre de facteurs déterminants pour le développement de la production litté-

Une durée de vie plus courte

Il faut se rendre à l'évidence : un ouvrage publié en langue basque, au Pays Basque, ne bénéficie pas des mêmes conditions d'édition qu'un livre publié en Espagne, en France ou en Grande-Bretagne. En France, un livre à succès est proposé en plusieurs versions (ouvrage relié, format de poche, club de lecteurs...). La réédition est également un phénomène courant. Au Pays Basque, le livre connaît une seule et unique version, ce qui raccourcit considérablement sa durée de vie. Quant aux rééditions, elles sont encore trop peu pratiquées.


Par ailleurs, le livre en langue basque ne s'exporte pas suffisamment. Pour intéresser l'extérieur, l'ouvrage en basque devrait nécessairement faire l'objet de traductions dans d'autres langues. En cela réside un problème de fond : la traduction d'ouvrages n'est pas suffisamment organisée en Pays Basque, et ne bénéficie pas des aides qui lui seraient nécessaires.



raire : le nombre des personnes alphabétisées s'accroît progressivement ; un réseau de bibliothèques, de librairies et de diffuseurs se met en place au fil des ans ; auteurs et éditeurs réalisent un travail considérable ; enfin l'existence d'une politique culturelle et linguistique des communautés autonomes favorise l'organisation de la production. Le schéma n'est d'ailleurs pas propre au Pays Basque puisque cette augmentation de la production livresque peut être constatée dans toute l'Europe, à la même période.

Edition et diffusion

Le Pays Basque compte actuellement une trentaine de maisons d'édition. Certaines publient une centaine de livres par an, d'autres se contentent d'une dizaine de publications annuelles. Pour la plupart, il s'agit de petites sociétés employant moins de 10 salariés. Reste qu'un peu plus de la moitié de la production est concentrée entre les mains de cinq maisons d'édition. Globalement, un millier de personnes vit à l'heure actuelle du livre



en Pays Basque. Certes, le paysage éditorial basque a considérablement évolué, et offre aujourd'hui un visage dynamique, compétitif. Mais de l'avis même de ceux qui travaillent dans ce secteur, il est indispensable que l'édition basque se renforce pour affronter l'avenir. Quant à la diffusion des ouvrages en langue basque, elle est essentiellement assurée par deux sociétés, Zabaltzen et Bitarte, qui se partagent 80 % de la production.

Créations et traductions

Demeure la question de la création. Si l'on compare la situation du Pays Basque avec celle de la France, de l'Espagne,

de l'Allemagne, de l'Italie, de la Galice et de la Catalogne, c'est au Pays Basque que l'on publie le moins de nouveautés. 30% des ouvrages sont des traductions. Les créateurs font-ils défaut ? Les éditeurs sont-ils trop frileux ? Serait-ce que l'écrit

effraie encore, en raison de sa jeune histoire dans la société basque ?

Pourtant les écrivains en langue basque sont bel et bien présents : 300 recensés à l'heure actuelle, dont un peu plus de 10 % sont des femmes. Mais très peu nombreux sont ceux qui vivent de leur écriture : 5% seulement.

Dans ces conditions, quels auteurs pour demain ? Très peu d'écrivains actuels ont moins de 30 ans, et cette absence de relève peut inquiéter. Il semble que ces dix dernières années, les jeunes aient délaissé la littérature pour se diriger vers le journalisme, plus attractif et plus rémunérateur. D'autre part, il faut bien constater que les revues littéraires, qui pourraient être des tribunes pour jeunes talents, font cruellement défaut. Autant de lacunes qui restent à combler, et d'interrogations aujourd'hui sans réponses.

LIBURU-PRODUKZIOA 1970-1983



Les rendez-vous du livre

Fort heureusement, en Pays Basque, le livre est également porté par la richesse du tissu associatif. Grâce à lui sont nées des manifestations comme l'incontournable Foire du livre et du disque basques de Durango, et un nombre incalculable de petites foires organisées tout au long de l'année dans la plupart des villes et villages du Pays Basque sud. Ainsi ont également vu le jour, en Pays Basque nord, le Biltzar des écrivains de Sare, et le salon du livre et du disque basques de Saint-Jean-de-Luz. L'un vient de fêter ses 16 ans d'existence et réunit chaque année plus d'une centaine d'auteurs ; l'autre prépare sa 7^{ème} édition et affiche une belle envie de découverte. Dans les deux cas, une même passion du livre, et une même volonté : donner le goût de lire et aider à mieux connaître la culture de ce pays.

16 ans de Biltzar

Il y a tout juste 16 ans, Jean-Michel GARAT osait un pari culturel de taille : réunir en un même lieu les auteurs du Pays Basque, écrivains en langue basque ou auteurs

d'ouvrages sur le Pays Basque et sa culture. "J'aimais bien lire des livres sur le Pays Basque, et je ne connaissais pas les auteurs. J'avais envie de mettre des visages sur des noms. Et je crois que beaucoup de gens étaient dans mon cas. Il y a deux intérêts à cette rencontre : d'abord les auteurs ont un contact direct avec le public ; et les auteurs se découvrent entre eux. Il m'est arrivé de présenter un auteur à un autre, et quelques années plus tard, l'un préfaçait l'ouvrage de l'autre." Mais quel regard porte l'organisateur du Biltzar sur la production littéraire actuelle ? "Il me semble que l'on n'a jamais autant écrit sur le Pays Basque. Comme si nous étions à la recherche de nos racines. La création fait un peu défaut. On manque peut-être de locomotives, d'auteurs qui regardent vers l'avant. Peut-être faudrait-il aussi que les maisons d'édition prennent plus de risques et fassent davantage confiance aux jeunes auteurs."

Livre, musique, art

Jusqu'ici réservé à la seule production littéraire en langue basque, le Salon du Livre et du Disque Basques de Saint-Jean-de-Luz proposera désormais un éventail beaucoup plus large d'ouvrages concernant le Pays Basque et sa culture. "Nous tenons à élargir le public, à ouvrir pour permettre au maximum de personnes de savoir ce qui est publié ici", déclare Jean-Pierre

LARRE, l'un des organisateurs du salon. "C'est pourquoi il était important qu'il y ait des ouvrages publiés en français, ou dans d'autres langues éventuellement. Beaucoup de gens manquent d'information sur le pays, sur sa culture, et il est important que ces gens

la puissent avoir accès à cette information. Tant mieux si cela crée une étincelle. Mais bien évidemment, le fil conducteur doit toujours être le pays et la langue." Ouvrir, y compris à d'autres expressions que le livre, par le biais de rendez-vous culturels et artistiques - théâtre, conférence, chant, musique... - organisés dans les jours qui précèdent le salon. Toutefois, les organisateurs ne perdent pas de vue leur objectif prioritaire : renforcer la place du salon dans la vie culturelle du Pays Basque. Pour Paulo ARZELUS, "ce qui est important, c'est de réunir les meilleures conditions possibles dans l'organisation de ce salon, de façon à ne fournir aucun prétexte aux maisons d'édition pour ne pas venir. Car notre objectif est de donner au salon suffisamment de crédibilité pour qu'il devienne un rendez-vous incontournable. Même si nous ne parvenons jamais au niveau de Durango, l'idée est d'avoir Durango au sud et Saint-Jean-de-Luz au nord."

(*) Toutes les données concernant la production de livres en langue basque citées dans cet article sont issues de l'ouvrage de Joan Mari Torrealdeai : "Euskal kultura, gaur".

BEHAKOA

LIBURUGINTZAZ

Joan-Mari Torrealdai "Jakín" aldizkariko zuzendariak liburugintzaz azterketa orokor eta aberats bat egiten du "Euskal kultura gaur" deitu liburu mamitsuan. Hartarik hartuak dira hemen agertzen ditugun xehetasunak, eskerrak bihurtuz egin duen lan baliosarentzat.

LIBURU EKOIZPENA

Argitalpenak

Euskal liburuaren historia, liburuaren lauetarik hiru azken 20 urte hauetan argitaratu dira. Franco hil ondoren, liburu kopurua hiru aldiz emendatu da. Lau faktore nagusiek goititze hori azkarki lagundu dute: jende alfabetatuaren hedapena; liburutegi, saltegi eta banaketa-sarearen antolakuntza; autore eta editoreen lana; azkenik, Euskal gobernuaren hizkuntza eta kultur politika. Erran behar da ere Euskal Herria ez dela bakarrik kasu horretan: Europa osoan goititze bera gertatzen da. Gaurregun, **1100 liburu** banabeste ateratzen da urtero euskaraz, berrargitalpenak eta itzulpenak barne.

Tituluak eta tiradak

Azken urte hauetan, liburu-tituluak aintz emendatu badira, tiradak aldiz ttipitu dira. Egoera hau Europa guzian ere frogatzen da. Orohar beraz, liburu ekoizpena (produktzioa) kontsumoa baino azkarragoa da.

Liburuaren banaketa gaiaren arabera

- Liburuaren erdiak haur eta gazteentzat dira (irakaskuntza liburu + haur/gazte literatura),
- Giza eta gizarte gaiak % 18,4 hartzen dute.

Liburuaren bizialdia

Arrakasta duen liburu, Frantzia adibidez, lau bertsio desberdinetan ager daiteke. Euskal Herrian, liburu bertsio bakar batean argitaratzen da. Horrek bizialdia laburtzen dio. Bestalde, berrargitalpenak oraindik ahul dira (% 21).

Liburuaren esportazioa

Euskal liburuak ez da aski esportatzen. Esportatzeko, Euskal liburuak beste hizkuntzetara itzulia izan behar luke. Hor dago funtsezko arrazo bat: itzulpena ez da antolatua, ez lagundua.

Ekoizpen propioak eta itzulpenak

Frantzia, Espainia, Alemania, Italia, Galizia eta Kataluniari konparatuz, Euskal Herrian da euskarazko liburu berri guttiena idazten.

Euskal liburuaren % 30 itzulpenak dira.

Zergatik ote? Ahalmen intelektual txikiak dugulako?

Ala itzulpen baten egitea, liburu baten asmatzea baino lan errexagoa delaloz?

IDAZLEAK

Ezaugarri batzu

Euskal idazleak 300 bat dira gaur.

% 10,6 emazteak dira (Frantzia % 18 eta Espainia % 14).

Gaurko idazleen % 63ek goi mailako ikasketak egin dituzte eta % 28,3ek baxotik gorago ikasketak ez unibertsitarioak. Idazleen % 38ak erakasleak dira.

Idazleen % 5 idaztetik bakarrik bizi dira.

Liburugintzak ba ote du gerorik?

Idazlegoaren adina, bata bestean, 49,7 urtekoa da gaur (adin hoberena omen da hau idazle batentzat).

Heldu diren 10 - 15 urteentzat geroa segurtatua da.

Baina gero?

Xehetasun gehiago nahi duenak, eskura beza

"Euskal kultura, gaur" Joan-Mari Torrealdai idatzi liburu aberasgarria.

Hauxe diote

Lucien Etchezaharreta
Maiatz elkartearen lehendakaria
eta izen bereko aldizkariaren arduraduna

Zein dira "Maiatz" literatura agerkariaren historiako oroitzenak eta xedeak?

Iragan urteei behatuz agertzen zait euskara idatziari eta bereziki Ipar Euskal Herriko hizkuntzari ekarri diogun plazaratzearen atsegina. Aldizkari bat sortuz, senditzen ginuen tresna berri horrek berrikuntza eta sorkuntzarako ahal berriak emanen zituela. Berrogei bat idazle berri ari izan dira, molde ezberdinetan beren lanen argitaratzen. Uste dut merezi duela oroitaztea Maiatz aldizkarian edo liburuetan dituztela beren lehen obrak agertu Itxaro Borda, Aurelia Arkotxa, Mayi Pelot, Mailux Legorburu, Arantxa Hirigoien, Antton Luku, Manex Lanatua, Jakes Ahamendaburu, Auxtin Zamora, eta ahanzten ditudan beste ainitzek. Pentsatzen dut ere ez garela sorkuntza horren iturri bakarrak, Herria astekaria edo



Hegoaldeko aldizkari batzuen eragina izan da ere. Bainan urrats

berri zerbait hor izan da, bereziki gaien tratamenduaren sailean eta literatura baten sorkuntzan.

Etorkizunari begira, berrikuntza, sorkuntza eta hizkuntzaren egokitze eta lantzea literatur munduaren eginbide dira sekulan baino gehiago. Ahal gutxiokoak ditu elkarte batek, ezagupen batek eta berriki Korrikak egin digun esker onak geroaren lagungarri ditaizke. Euskal kultur eta politika munduan indar asko erabiltzen dira gure nortasunaren alde, militanteen beharra dugu euskararen alde literatur sorkuntza eta kudeantzan. Pentsatu behar da hor dugula giltza Iparraldeak bere literatur nortasun eta aberastasunak atxikitzeko eta bere berezitasun ederrak "batuaren" kutxan sartzeko.

Ce qu'ils en pensent

Aines Dufau, directrice du Centre pédagogique basque Ikas



Des centaines, des milliers de livres en basque, essentiellement des ouvrages de littérature, afflueront prochainement vers les bibliothèques et centres de documentation d'Iparralde. Comment ces dons du Département Culture du Gouvernement autonome basque sont-ils perçus à IKAS ?

Ce sera la troisième fois qu'une telle opération se produira. La première eut lieu au bénéfice d'une vingtaine de bibliothèques municipales d'Iparralde; la seconde, l'an dernier, au bénéfice des établissements scolaires.

IKAS, qui a piloté cette seconde diffusion, n'a pu satisfaire toutes les demandes. Manifestement, bien des dotations de cette ampleur seront encore nécessaires pour que des fonds de littérature basque soient constitués dans toutes les bibliothèques municipales et les établissements scolaires d'Iparralde. De tels dons sont évidemment les bienvenus dans notre centre de documentation aussi.

Comment peut-on optimiser l'utilisation des fonds ainsi constitués ?

Il convient en premier lieu de les organiser, c'est-à-dire de les classer et de les informatiser. Cela suppose que les bibliothécaires et documentalistes aient, en plus de leur compétence technique, un niveau de connaissance de la langue et de la littérature basques leur permettant d'exploiter ces fonds. Vaste chantier pour la plupart des bibliothèques et centres de documentation. Enfin, tant de livres de littérature en langue basque rendus accessibles, il importe de susciter l'envie de les lire.

Concernant le domaine scolaire, en plus des animations mises en place dans certains établissements par des enseignants ou documentalistes,

IKAS propose une formule qui mérite d'être développée: "Idazleak eskoletan". Les enseignants choisissent avec leurs élèves une œuvre de littérature, qu'ils étudient en classe, puis en invitent l'auteur. Cela crée une autre relation entre l'œuvre et l'élève, entre la littérature de façon générale et les jeunes lecteurs et, qui sait, suscite peut-être des vocations d'écrivain... De plus, les écrivains invités en classe sont en général très heureux du contact établi avec leur jeune public.

IKAS est en premier lieu un service de production et de diffusion de matériel scolaire en langue basque...

Notre centre de documentation, constitué essentiellement de matériel pédagogique en euskara (plus de 3000 titres de livres, vidéos, CDROM, en plus des périodiques) est mis à la disposition des enseignants - mais aussi du grand public - qui viennent pour consultation ou emprunt, comme dans toute bibliothèque ou centre de documentation public. Un documentaliste mis à disposition par l'Éducation nationale gère ce fonds en constante évolution et apporte aide et conseil aux utilisateurs.

La quasi-totalité des outils pédagogiques en euskara sont actuellement créés en Pays Basque Sud où les programmes scolaires sont différents des nôtres. Nous nous efforçons donc de répondre aux besoins spécifiques de matériel pédagogique destiné à l'enseignement du basque et/ou en basque ici, en Pays Basque nord. L'élaboration de ces outils repose essentiellement sur le bénévolat des professeurs des différentes filières (publique, catholique et ikastolas), que nous réunissons régulièrement à IKAS pour réaliser un travail commun. Nos premières productions: *Kantiruri*, un CD et un guide didactique destinés à l'apprentissage de la musique, de la psychomotricité et de l'euskara en maternelle et, dans quelques jours, les annales des épreuves écrites de basque au baccalauréat - sessions 1992 à 1998 - avec corrigés, publiés en coédition avec le Centre régional de documentation pédagogique d'Aquitaine.

NOIZ NUN ZER

APIRILA / AVRIL

AGENDA

- 21 → 25 : **Biarritz** : Fêtes musicales. Xehetasunak / Renseignements : Biarritz Culture 05 59 22 20 21
- 23 → 2/05 - **Urruña / Urrugne (salle Posta gela)** : Exposition de photos / argazki erakusketa : "Le Pays Basque vu par Jacques Pavlovsky".
- 23 - 19 h - **Urruña / Urrugne (salle Posta gela)** : Mintzaldia (frantsesez) Euskal Herriko historiari buruz Manex Goyenetxeekin / Conférence (en français) sur l'histoire du Pays Basque par Manex Goyenetxe
- 23 - 17 h 30 - 20 h - **Biarritz (Le Colisée)** : Conférence avec débat "L'enfant et la danse, quel avenir pour un danseur en Pays Basque ?" organisée par la Compagnie Maritzuli.
- 24 - 22 h - **Baigorri** : Rock kontzertua / Concert rock avec Etengabe, Hats, Mokoka
- 24 - 21 h - **Baiona / Bayonne (Théâtre)** : Spectacle "Ixtorio mixtorio". Xehetasunak / Renseignements : Euskal Dantzarien Biltzarra 05 59 44 09 02
- 25 - **Egun guzia / Toute la journée - Baigorri** : Nafarroaren eguna
- 27 - 21 h - **Urruña / Urrugne (salle Posta gela)** : Présentation du documentaire "Bat bi" (évolution de la musique basque), suivie d'un débat / "Bat bi" dokumentarioaren aurkezpena (euskal musikaren harat-honata) eta ondotik eztabaida.
- 30 - 21 h - **Urruña / Urrugne (salle Itsas Mendi gela)** : Théâtre "Beherearta" antzerkia, Xirixiti-Mirixiti taldeak emanik. Xehetasunak / Renseignements : Hazia 05 59 54 63 73.

MAIATZA / MAI

- 1 - 16 h - **Urruña / Urrugne (salle Iturbidea polikiroldegian)** : Spectacle de clowns "Kiki, Koko eta Flak"-en emanaldia. Xehetasunak / Renseignements : Hazia 05 59 54 63 73.
- 2 - **Egun guzia / Toute la journée - Urruña / Urrugne** : Musika, zikiroa, bertsulariak, dantzak.
- 2 - 10 h 30 et 16 h 30 - **Irisarri / Irissarry** : Haur kantu xapelketa (Baxe-Nafarroako final-erdia / demi-finale de Basse-Navarre). Xehetasunak / Renseignements : Haize Berri 05 59 37 85 79
- 2 - **Laudio (Araba)** : Dantzari eguna. Xehetasunak / Renseignements : Euskal Dantzarien Biltzarra 05 59 44 09 02
- 8 - **Hendaia / Hendaye** : Dantzari ttiki. Xehetasunak / Renseignements : Euskal Dantzarien Biltzarra 05 59 44 09 02
- 9 - **Senpere / Saint-Pée-sur-Nivelle** : Herri urrats (grand rassemblement en faveur de la langue basque)
- 12 - 21 h - **Izpura / Ispoure (salle Faustin Bentaberry gela)** : Théâtre en langue basque "Kontrabajua" euskarazko antzerkia. Xehetasunak / Renseignements : Garazikus 05 59 37 06 04
- 14 → 15/06 : **Baiona / Bayonne ("Le Carré" du Musée Bonnat)** : Exposition de photographies "Abbadia, résidence d'artistes".
- 14, 15 et 16 : **Urdinarbe / Ordarp** : 10. musikaren eguna, 10^{ème} fête de la musique. Xehetasunak / Renseignements : Uhaitza 05 59 28 44 46
- 15 - 9 h - **Aldude / Les Aldudes (zinegela / Salle de cinéma)** : Pièce de théâtre "Frigoa ta ni" antzerkia. Itsasuko antzerkilariek emanik. Organisateur / Antolatzailea : Aldudarrak batasuna.
- 15 → 23 : **Hendaia / Hendaye (Cinéma "Les Variétés" zinegela)** : Exposition de travaux d'élèves "Imaginaire".
- 15 → 5/06 : **Hendaia / Hendaye (Médiathèque)** : Exposition de photographies "Abbadia ou le cabinet d'arpenteur". Xehetasunak / Renseignements : Domaine d'Abbadia 05 59 20 37 20
- 23 - 21 h - **Donibane-Garazi / Saint-Jean-Pied-de-Port (Cinéma "Le Vauban" zinegela)** : Chants avec Jojo eta Ramuntxo. Xehetasunak / Renseignements : Garazikus 05 59 37 06 04
- 30 - **Egun osoan / Toute la journée - Donibane-Lohizune / St-Jean-de-Luz** : "Euskal Besta - Udaberria dantzan". Organisateur / Antolatzailea : "Begiraleak".

EKAINA / JUIN

- 6 - **Toulouse** : Forum des langues du monde. Xehetasunak / Renseignements : Carrefour Culturel Arnaud-Bernard 05 61 23 58 55
- 10 - 20 h - **Gasteiz (Kultur etxean)** : Récital "Lur ezpalak" par la compagnie Bordaxuri.
- 12 - 21 h - **Atarratzte / Tardets** : Récital "Lur ezpalak" par la compagnie Bordaxuri. Xehetasunak / Renseignements : Uhaitza 05 59 28 44 46.
- 12 - **Egun osoan / Toute la journée - Donibane-Lohizune / St-Jean-de-Luz** : Euskal liburu eta diska azoka / Salon du livre et du disque basques. Organisateur / Antolatzailea : Kultur Azoka, en collaboration avec le Centre pédagogique basque Ikas.

EZ AHANTZ... EZ AHANTZ... / A NE PAS OUBLIER

Uztailaren 2, 3 eta 4an : "Euskal Herria zuzenean" Arrosan
2, 3 et 4 juillet : "Euskal Herria zuzenean" à Arrossa
Xehetasunak / Renseignements : Piztu 05 59 25 73 03

Agorrilaren 1ean eta 8an : "Agota" pastorala Altzai-Lakarrin
1^{er} et 8 août : Pastorale "Agota" à Alçay Lacarry

Azaroaren 6 eta 7an - 6 et 7 novembre à Ustaritz,
Colloque : "Quelle culture basque pour le XXI^{ème} siècle ?" organisé par l'Institut culturel basque.

QUESTION A... MINTZO

Philippe MAYTÉ Enseignant et comédien à Xirixiti - Mirixiti

Quelle culture basque pour le XXI^{ème} siècle ?

Est-il possible d'imaginer ce que sera la culture basque à la fin du siècle prochain ?

Il faudrait pour cela imaginer ce que pourraient être les cultures, les modes ou les phénomènes sociaux du monde entier.

Quand Francisque Michel dressa à grands traits exotiques, en 1857, dans son ouvrage "Le Pays basque", un tableau de la culture et des traditions de ce pays, il n'avait à considérer que l'objet de son étude, tant ce pays était replié sur lui-même.

Aujourd'hui et encore moins dans 100 ans, rien de tel.

La culture basque de cette fin de millénaire est en effet à la fois l'émanation d'une histoire, d'un vécu communautaire ou linguistique multi-séculaire que le fruit des grands chambardements de ce 20^{ème} siècle : américanisation puis mondialisation de la culture et des loisirs, libération de la femme, développement général de l'éducation, exode rural et explosion urbaine... Ainsi la culture basque du 21^{ème} siècle sera "ethno-

mondialisée" dans le sens où elle continuera d'absorber comme en cette fin de siècle les grands courants culturels (du Rock à Internet) et de les faire siens (de Niko Etxart à Caroline Phillips).

Dans ce syncrétisme entre identité et mondialisation, deux enjeux me semblent être primordiaux :

- Assurer une création "compétitive", c'est-à-dire qui, sans être une copie basquée d'autres réalités culturelles, propose une qualité infaillible. Pour cela, une professionnalisation de la culture basque (de la création à la diffusion) devra être poursuivie et renforcée).

(de la création à la diffusion) devra être poursuivie et renforcée).

- Former le public, sans qui il ne servira à rien de créer. La force, la vitalité d'une culture ne vient pas tant de la qualité de ses créateurs que de la capacité du public à recevoir ces créations. Pour cela, l'enjeu de la langue passe en premier (à moins d'imaginer comme certains une culture basque sans euskara...) et sera suivi d'un souci d'atteindre une masse culturellement qualifiée d'où émergeront des créateurs.

Il reste à trouver des recettes, à affirmer des volontés communes et à engager des politiques enfin durables donc efficaces. Beau et vaste chantier.



ARGIBIDEAK INFOS PRATIQUES

Formakuntzak / Séminaires de formation

NUN - OU	NOIZ - QUAND	ZER - QUOI
Sciences-Po grenoble Grenoble	1999ko maiatzaren 19 eta 20an Les 19 et 20 mai 1999	Modes de gestion des équipements culturels
Sciences-Po grenoble Grenoble	1999ko urriaren 27 eta 28an Les 27 et 28 octobre 1999	Personnels des équipements culturels Statuts et régimes juridiques

Edozein xehetasunentzat / Pour tout renseignement :
Institut d'études politiques de Grenoble
B.P.48 - 38040 Grenoble Cedex 9 - Tél : 04 76 82 60 13

Quelques sites Internet à visiter !

<http://www.basquearts.com>
<http://www.info@basquearts.com>

Basque multimédia
Création de sites, spécialiste de galeries marchandes sur Internet

<http://www.eurocite-basque.org>
<http://www.euskal-eurohiria>

Eurocité basque - Hôtel du District Bayonne Anglet Biarritz

<http://www.irma.ass.fr>

Centre d'informations et de ressources pour les musiques actuelles

<http://www.cite-musique.fr>

Centre de recherches et d'informations du Musée de la musique

<http://www.info.europe.fr>

Centre de ressources et d'animation sur l'Europe

<http://www.euskonews.com>
suse00.su.ehu.es

Site de l'association "Eusko ikaskuntza"

LIBURUAK - LIVRES

Guide de la diffusion théâtrale 1998 / 1999

Edition 1998 - Thécif/Centre National du Théâtre - 767 pages - 150 F
Présentation, sur le plan national, des programmations théâtrales

L'énergie qui danse, l'art secret de l'acteur

E. Barba/ N. Savarese - 1995 - 267 pages - 250 F
Un livre de référence sur les techniques du jeu de l'acteur et des danseurs.

Le lexique de la scène

Michel Ladjy - 1998 - 208 pages - 220 F
Cet ouvrage se présente sous la forme d'un lexique des termes utilisés couramment dans la pratique de la scène.

Guide annuel du spectacle vivant 1998 - 1999

1998 - Centre National du Théâtre - 1077 pages - 300 F
Un outil de travail au quotidien pour les professionnels du spectacle vivant

Guide du comédien

A. Hegel / E. Normand - 1998 - 200 pages - 145 F
Des renseignements pratiques pour la formation de l'acteur et son insertion professionnelle

Erosteko, deit helbide hontara / S'adresser à :

La scène - B.P. 102 - 14008 CAEN Cedex - Tél : 01 43 26 97 56
E-mail : librairie@lascène.com

LES CHIFFRES - CLES

Plafond de la Sécurité Sociale - Année 1999

Mois : 14 470 F / Quinzaine : 7 235 F / Semaine : 3 339 F

Journée : 668 F / Heure : 86 F

Cachet 8 heures : 668 F / Cachet 12 heures : 1 082 F

SMIC

Base horaire : 40,22 F / Base mensuelle : 6 797,18 F

EURO

1 euro = 6,55957 franc français, 166,386 pesetas espagnoles

Antzerki berri bat irri egiteko : "Frigoa eta ni"

Auxtin Metro, mail apaleko artixta hitza, bakarrik bizi da, bere frigoarekin. Eta bere buruari sinetsarazi nahi dako bakardade hori berak hautatua duela... Auzo depresibo bat, armadako "lagun" ohi bat bere emaztearekin, esperientzia guziki ezagutuak dituen dizko produktorea bitxi bat : horiek oro doi bat nahasiko dituzte Auxtinen bizia eta bakardadea. Irri egiteko komedia bat, funtsezko "mezurik" gabe, Itsasuar talde batek idatzi eta apailatu duena. Bortz jokolarri dira, oren bat eta erdiz elgarri lausenguka, trufaka eta galdezka ar...

Harremanak : 05 59 29 74 78 edo 05 59 29 82 50.

"Leihotik" N° 8 -

1999ko Apirila-Maiatza / Avril-Mai 1999

Euskal kultur erakundearen berrirapera
Bulletin d'information de l'Institut culturel basque
I.S.S.N. : 1276 - 4779

Directeur de la publication : Pantxoa Etchegoin

Rédaction : Kattalin Totorika, Daniel Landart, Terexa Lekumberri
Photos : Jean-Claude Broca

Maquette et impression : André Larré - Bayonne

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

Lota jauregia / Château Lota
64480 UZTARITZE/USTARITZ

Tél. 05 59 93 25 25 - Fax 05 59 93 06 84

E-mail : eke@wanadoo.fr - <http://www.eke.org>